

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteazkena, 2011ko ekainaren 15a. VIII. urtea. 2.244. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Ezkerretik eskubira Susana Larre, Arantxa Estanga eta Asier Martin. LURKIZU

Heldu zein gazteentzako kirol eskaintza, Tolosan

Ekainaren 27an hasiko da herriko udako kirol eskaintza, eta irailaren 24a bitarte zabalduko da; aurten helduen parte-hartzea sustatu nahi dute antolatzaileek, eta horretarako ikastaro guztietan aritzeko bonoa izango dute eskuragarri, lehen aldiz **02**

Lizartzako Sorginak Haur Kantu Txapelketako garaile izan da bere mailan

Taldeak 6 eta 11 urte artekoetan lehen saria eskuratu du Euskal Herriko lehiaketan; Leire Erbiti maila bereko bakarlariren bigarrena izan da, eta Irurako Neskak-ek sorkuntza saria jaso du **04**



Lizartzako Sorginak taldeak jaso du taldekako lehen saria. HITZA

Ekitaldi ugari izango dira Anoetan Korputz jaiak hasi aurretik

Kukua ekainaren 22an jaitsiko bada ere, aurretik koadrilen eguna izango dute, eta baita Mikel Markez eta Erramun Martikorena entzuteko aukera ere **05**

Ibarrako Lauburu taldeak Euskadiko Txapelketa irabazi du

Areto futboleko jubenilen taldeak, bere aldetik, Gipuzkoako Txapelketa irabazi du hirugarrenez, Elgoibarko Debarrena taldeari irabazi ostean **06**

www.tolosaldea.hitza.info

herrietako informazioa inoiz baino gertuago ezagutu gure webgune berriak

www.ibarraldea.hitza.info • www.alegialdea.hitza.info • www.anoetaldea.hitza.info • www.villabona-aiztondo.hitza.info • www.leitzaldea.hitza.info • www.tolosa.hitza.info





Ikastaro gehienak Usabal kiroldegian izango dira. HITZA

Ikastaro guztietarako balioko duen bonoa izango da udako kirol eskaintza

Lehen ikastaroak ekainaren 27an hasiko dira; kanpoko igerilekua zabaldu dute jada

Itzea Urkizu

Aurkeztu dute jada, datorren udan Tolosan eskuragarri izango den kirol eskaintza. Lehenengo ikastaroak hilaren 27an hasiko dira, eta irailaren 24an amaituko da udako kanpaina.

Heldu nahiz gaztetxoentzako ikastaroak ohikoak izango dira, baina aurtengo udarako hainbat berrikuntza aurkeztu dituzte Usabal kiroldegiko arduradunek; besteak beste, dike-triala egiteko aukera izango da aurten.

Adin guztietarako kirola

Haurrentzako kirol eskaintza proposatzeko, bi irizpide nagusi jarraitu dituzte; alde batetik, Usabal kiroldegian bertan burutzeko ekitaldiak antolatatu dituzte, eta bestetik, naturarekin kontaktua sortzeko kirolak ere eskuragarri izango dituzte gaztetxoek.

Horrela bezaz, 3 eta 14 urte bitarteko haurrek honako kirol jardueretan izena eman ahal izango dute: Igeriketa, *cycling-a*, *fama dance*, eskalada, *futbol stage-a*, kirol ludoteka, *basket stage-a*, arrauna, Jolas Blai, tenisa, pira-

guismoa, hipika eta pilota. Futbol eskola laugarren urtez jarraian antolatu dute, eta aurreko urteetako arrakasta izango duela espero dute. Hala ere, «gaztetxoak, futbolaz gain, beste kirol batzuk egitera ere bultzatu nahi ditugu», diote antolatzaileek. Horrela, saskibaloio eskola ere antolatu dute; Lagun Aro GBCko jokalaria den Lander Lasa tolosarra izango da irakaslea. Bide beretik, kirol ludotekak ere arrakasta izan du aurreko urteetan, eta kirol asko praktikatzeko aukera ematen die gazteenei. Azkenik, aipatzekoa aurtengo dantza eskola astelehenetik ostiralera izango dela, eta berrikuntza ugari eskainiko dituela: Koreografiak eta *lipdub*-ak egitea, euskal dantza, salsa, eta abar.

Helduek ere, izango dute kirola egiteko aukera uda honetan; «iazko udako kanpaina 900 bat lagunek parte hartu zuten, baina helduen parte-hartzea sustatu nahi dugu», esan dute Usabal kiroldegiko arduradunek. Hau dela eta, ikastaro guztietan parte hartzeko bonoa eskuragarri jarri dute, aurten, lehenengoz. Bono honekin, antolatzaileek «erabiltzailea ordutegi zehatz batera ez lotu beharrra» lortu nahi dute; udan, jendeak beste dinamika bat izaten duelako, eta hortaz, «eratzasunak» eman nahi dituzte kirol eskaintza gozatu ahal izateko.

Helduentzako kirol ikastaroak

ondorengoak izango dira: *Aquagym*, *aerobic-a*, pilates, *GAP*, igeriketa, *cycling-a*, eskalada, piraguismoa, hipika eta entrenamendu pertsonala. Ikastarotarako bono berriarekin, edozein ikastarotara joateko aukera izango da, edozein ordutan; salbuespenak piraguismoa, hipika eta entrenamendu pertsonala izango dira.

Aipaturiko ikastaro gehienak Usabal kiroldegian burutuko dituzte, baina piraguismoa eta arrauna Zerkausian izango dira, eta hipika zezen plazan egingo dute; era berean, tenisako ikastaroa Berazubiko estadiotan izango da.

Ikastaroen salneurriak Kiroldegian bertan edo www.usabalkiroldegia.com webgunean ikus daitezke.

Literatura igerilekuan

Aurtengo udan ere, Usabalgoko kanpoko igerilekuan liburutegi zerbitzua jarriko dute. Bertan, liburuak maileguan hartzeaz gain, udal liburutegiko bazkide egiteko aukera eskainiko dute. Gainera, doako *wifi* zerbitzua ere izango da. Astelehenetik larunbatera egongo da zabalik, 15:00etatik 19:00etara.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Ileapaintzailea.** Tolosako ileapaintze batek, esperientziadun pertsona bat behar du lanaldi osoarako. Interesa dutenek, dei dezatela 625 70 50 59 telefono zenbakira.

■ **Zerbitzaria eta sukaldaria.**

Hemeroteka

Asuncioneko langileak

Osasun pribatuaz, osasun publikoaz.

Gutun honen bidez, Asuncion Klinikako (Inviza SA) enpresa batzordea osatzen dugunok adierazi nahi dugu Tolosako espezializazioez arduratzen den anbulatorioa ixtearen kontra gaudela. Osasun publikoaren erabiltzaile garen neurrian ere, ez dugu Tolosako espezializazio-anbulatorioa ixtea nahi. Era berean, osasuneko langile bezala, ez dugu osasun publikoa pribatizatzea nahi. Inguruko eskualdeetan, Goierri kasu, ez dute anbulatorioak ixteko beharrik izan. Gure ustez, eskualdeko ospitaleak eta anbulatorioak bateragarriak dira.

Bestalde, askotan entzun dugunaren kontra, adierazi nahi dugu itundutako ospitale pribatuko langile garen neurrian, gure lan baldintzak osasun publikoan dituztenenak baino eskasagoak direla; nahiz eta horrek ez

duen sekula eragin artatu ditugun gaixoei jaso duten tratuan. Egia da, azken urteotan, Asuncion Klinikako langileen baldintzak asko hobetu direla, baina oraindik orain, ez gaude Osakidetza langileen pare (besteak beste, gure lanurteak ez dituzte kontuan hartzen Osakidetza oposaketetan).

Egun, Tolosaldeak bi duen osasun zerbitzuaren egoera, azken urteotako kudeaketak ekarri du. Politikoa eta enpresariaren arteko harreman interesdunak herritarrek jasotzen dugun osasun zerbitzuaren eragina izan du. Ea behingoz, denok bildu da ganorazko osasun publikoaren alde egiten dugun, herritarrei merzei duten arreta emango dien anbulatorioak irekita mantenduz, eta orain dugun ospitalea hobetuko duen eskualde-ospitale publiko bat lortuz.

■ **Asuncion Klinikako enpresa batzordea.**

→ Laburrak

Elikadura osasuntsuari buruzko hitzaldia

TOLOSA Datorren ostiralean, hilak 17, elikadura osasuntsuari buruzko hitzaldia izango da Antonio Maria Labaien kultur etxean. Gabor Smit dietalaria izango da hizlaria, eta besteak beste, dieta orekatuz ariko da. Hitzaldia 19:30ean hasiko da, ADITEC elkarteak antolatuta.

Araba Euskaraz-era joateko autobusa

TOLOSA Galtzaundi euskara taldeak, datorren igandean Laudion ospatuko duen Araba Euskaraz festara joateko autobusa antolatu ditu. Zezen plaza irtengo dira 09:00etan, eta itzultzeko, 19:00etan irtengo dira Laudiotik. Prezioa 12 eurokoa izango da, eta Galtzaundi bazkideek 10 euro ordaindu beharko dute. Izena emateko, Galtzaundira joan daiteke, edo 943 65 50 04 telefono zenbakira deitu.

Aina taldea entzuteko aukera bihar, Bonberenean

TOLOSA Bihar 22:00etatik aurrera No More Lies eta Aina talde kataluniarren kontzertuak izango dira Bonberenean. Aina taldeak orain urte batzuk utzi zion jotzeari, eta bi kontzertu emateko itzuli da, horietako bat Bonberenean izango delarik.

Beti Aina
jatetxea

Garaian garaiok janariak Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Tolosako antzerki tailerreko kideak *Criaturas* ikuskizunaren aurkezpen ekitaldian. HITZA

X. Araxesko Itzuliarekin gustura

Amarotz Mendi Elkarteko kideek antolakuntza lanetan auzotarren laguntza eskertu nahi izan dute

Asier Imaz

X. Araxesko Itzuliaren balantzea egin dute Amarotz Mendi Elkarteko kideek. Ibilbide luzeko itzulia antolatzen zuten lehen aldia izan da eta gustura agertu dira

lortutakoarekin. Itzulian izena 150 mendizalek eman zuten, eta hauetatik 30 emakumeak izan ziren. Partaideek 30 elkarte ordezkatu zituztela ere gogoratu nahi izan dute.

Eskerrak ematerako orduan, Amározko auzotarrak gogoan izan dituzte mendi elkarteko kideek, antolakuntzan laguntzeagatik. Erakundeen eta merkatarien laguntza ere eskertu nahi izan dute, partaideentzat Araxesko Itzuli amaierako sariak jartzeagatik.



X. Araxesko Itzulian partaideak irteera puntuan. HITZA

Antzerki tailerrekoek 'Criaturas' lana antzeztuko dute etzi, Leidorren

Ikuskizuna 20:30ean hasiko da; antzezlana noizbait haur izan den ororentzat da egokia

Erredakzioa

Kultur Etxeko antzerki tailerrean 22 lagunek hartu dute parte aurtengo ikasturtean, eta horietatik 20 oholta gainera igoko dira etzi. Ikuskizuna Leidor aretoan izango da, 20:30ean.

Criaturas lana 1998. urtean T de Teatre kataluniar taldeak sortu zuen trilogiaren gailurra da. Ber-

tan gaztetxoek hartzen dute parte. Antzezlan hau, baina, ez da pedagogiari buruzko irakasgai bat, ez eta haurtzarora eramango gaituen nostalgiaz beteriko lana.

Criaturas noizbait haur izan den ororentzako zuzendua dago. Honela azaldu dute tailerrekoek: «Gazteen heziketa faltaren arduradun irakasleak edota gobernuak jotzen ditugu, eta gurasoen ardura direla gazte horiek ahazten zaigu». «Interneten murgilduta igarotzen dituzte orduak, gurasoen jarrerak ikusten dituzte, euren ardura eta desiren inguruan gogoeta egiten dute... azken batean, gurasoen moduan, beraiek ere pertsonak dira».

Asvineneari eskerrak

Antzerki tailerren bigarren emanaldia izango da ostiralekoa. Aurez, tailerreko Tic Tac taldeak Asvineneak antolatzen duen bosgarren poltsiko lehiaketan hartu du parte. 27 talde aurkeztu dira guztira bertan, eta antzerki tailerrekoek ikusleen saria jaso berri dute. *Maitetasuna* izeneko antzezlanarekin aurkeztu dira lehiaketara.

Tolosako antzerki tailerretik «Asvinenearen babes eskertu» nahi izan dute, «horrelako ekimenak antolatzea azpimarratzen dugu, era guztietako jendeak har baitezake parte bertan... Eskerririk asko!».

→ Laburrak

Alpino Uzturreren irteeran izena emateko aukera

MENDIA » Alpino Uzturrek hilaren 19rako mendi irteera antolatu du. Burgos ingurura joango dira oraingoan. Izena emateko alpinouzturre@hotmail.com era idatzi eta 943 65 27 89ra deitu behar da.

Mus txapelketan parte hartzeko aukera

AISIALDIA » III. Iturritza Mus San Joan Sarian parte hartzeko aukera hilaren 18ra arte egongo da zabalik. Izena emateko, astean zehar, Iturritza Jubilatuko Elkartera joan behar da, 10:00etatik 12:00etara. Lau eta zortzi erregetara jokatu da, eta zozketa hilaren 23an egingo da, 10:30ean. Parte hartzen duten guztiak saria jasoko dute.

● Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



IBON GARMENDIA UGARTE

Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai, hauts hartatikan uste gabean noizpait giñaden gu ernai

Jon-en dantzako lagunak

Villabonan, 2011ko ekainaren 15ean



ION LAZKANO LASA

Adio Ion, aita, senar eta lagun on, Adio Ion.

Hire koadrila

LAZKAO, 2011ko ekainaren 15a

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Eskualdeetakoak bikain, Haur Kantu Txapelketan

Lizartzako Sorginak taldeak, Irurako Neskak taldeak eta Leire Erbiti leitzarrak sariak jaso dituzte

I. Garcia

Euskal Herriko Haur Kantu Txapelketan Tolosaldeko eta Leitzaldeko ordezkariak bikain aritu ziren. Lizartzako Sorginak taldeak lehen saria eskuratu zuten 6-11 urte bitartean. Adin tarte berdinean parte hartu zuten Irurako Neskak taldeak eta sormeneko sari berezia lortu zuten. Leire Erbiti leitzarrak bigarren saria lortu zuten bakarlarieen mailan, 6-11 adin artean ere.

Sorginak taldea Irupe Arrospide, Enara Goikoetxea, Saioa Arrospide eta Maddi Bengoetxeak osatzen dute. Beraiekin aritu ziren Amets Esnaola gitarrarekin, Jexux Mari Esnaola akordeoiarekin eta Garazi Esnaola teklatuarekin. Urretxindorrek taldearen *Iguriako bolua* abestia kantatu zuten. Irurako Neskak taldea Ane Amondarain, Iratxe



Irurako Neskak taldea, pozik bere sariarekin. HITZA

Iturbe, Ane Izagirre eta Garazi Karrerak osatzen dute. Beraiekin sortutako *Nire argi txikia* abestiarekin parte hartu zuten eta baita saria jaso ere. Leire Erbitik *Hegaldi askea* abestiarekin parte hartu zuten txapelketan.

Hazparneko (Lapurdi) Mendela aretoan izan zen saioa. Guztira 27 abesti aurkeztu ziren. Mendela aretoa lepo bete zen, eta Euskal Kantuzaleen Elkartetik azaldu dutenez, «zazpi lurraldeetako haur kantariak elkar ezagutu eta esperientziak trukatzeko aukera izan zuten».



Leire Erbiti leitzarra. HITZA



Eduardo Mokoroa eskolakoek kontzertua eman zuten parkean. HITZA

Artubi elkartekoak «oso gustura», jendearen parte-hartzearekin

Kultur Asteburuko jardueri amaiera eman zieten igandean txirindularien eta mendizaleen martxekin

I. Garcia Bedaio

Asteburu «bikaina» pasatu dute Bedaion, ohitura zaharrak, musika eta kirolak uztartuz. Artubi elkartekoak «oso gustura» daude egindako jarduerekin eta jendearen parte-hartzearekin. Harri Jaiarekin hasi zituzten ekitaldiak, ostegunean, usadio zaharrei jarraipena emanez. «Egun pasa polita» izan zuten bedaiotarrak, Artubi elkartetik azaldu dutenez. Bedaioko hainbat etxetan jasotako argazkiekin bertako historiaren zati txiki bat ere ikusteko aukera izan da parkean jarritako erakusketan.

Larunbatean musikak hartu zuten arratsaldea Abaetxe lora-tegietan. Haurrentzako parke berria inauguratzeko aitzakia hartuta, Tolosako Eduardo Mokoroa musika eskolako klarinete eta

akordeoi taldeak kontzertu polita eskaini zuten. Distantziak murriztuaz, Tolosako herrigunetik Bedaiora iritsi ziren musika doinuak. Ondoren, Jon Beldarrainek sorturiko bertsuak kantatu zituzten kontzertura joan zirenek, bedaiotarrak prestatuturiko kontzertuaren bigarren zatian.

Kirola, inguruko paraieetan

Igandean kirolari eman zitzaion bidea eta mendizale eta txirindulari anitz elkartu ziren bertako mendietan Artubi elkartekoak prestatuturiko bi zirkuituetan zehar ibiltzeko. Hainbat laguntzailek eskainitako opariak banatu ziren eta hamaiketako ederra hartu ere bost orduko marxa gauzatu ondoren. Hendaia, Irun, Oiartzun, Pasaia, Errenteria, Zumarraga, Zarautz, Arrasate, Elgoibar eta Tolosaldeko hainbat herritako mendizale eta txirindulari elkartu ziren Bedaioko bailaran.

Artubi elkartetik azaldu dutenez, «berriro ere eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu bai laguntzaileei eta baita Bedaiora agertu diren guztiei».



Txirindulariak, BTT martxa hasteko irrikitan. HITZA

Irudikatu mundua **BERRIA**rekin

Egin harpidedun eta jaso argazki kamera hau OPARI

Zu zara berria

Uztailaren 15ean, **telebista** hau zotz egingo dugu berriaren harpidedunen artean, Super Sonidoren eskutik.

EZAUGARRIAK:

- Kamera digitala, 10 megapixelekoa.
- LCD pantaila, 2,4 hazbetekoa.
- Zoom digitala, x4, argazkiak handitzeko.
- Mugimenduko JPEG bideo formatua.
- Mikrofonoa.
- SD memoria txartelak onartzen ditu.

EZAUGARRIAK:

SONY KDL-37EX720 - Edge LED Full HD 3D telebista, familia guztiarentzat. 94 cm/37". Motionflow XR 200. Internet bidezko bideoa eta Skype™ dituen.

- 3D eta 2D irudi kalitate bikaina eta garbia.
- Goza ezazu Interneteko bideoz eta Skype™ bidezko dei doako.
- Aurreratu denbora eta energia funtzio adimendunei esker.

SUPER SONIDO

Urbeta, 40 - Donostia
Tel.: 943-45 69 02
www.supersonido.com

Harremanetarako:
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

Aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**

Kukua jaitsi baino lehen lehertuko da jaia Anoetan

Dantza ikuskizunarekin emango diete ostiralean jaiari hasiera, baina txupinazoa hilaren 22an botako dute

Eneritz Maiz Anoeta

Korputz egunaren bezperan, hau da, hilaren 22an jaitsiko da jaiari hasiera ematen dien Kukua, elizako kanpandorretik udaletxeko balkoira. Baina festa giroa, ostiralean hasiko da Anoetako Dantza Taldearen ikuskizunarekin.

Larunbatean, koadrilen eguna izango dute. 12:00etan emango

diote hasiera txupinazoa eta kalejirarekin. Jarraian bazkaria, jokoa, poteoa eta afaria egingo dituzte. Eguna bukatzeko Laket taldearekin erromeria izango da.

Igandearen berriz, Dantzari Txikien Eguna ospatuko dute. Goiz osoan zehar, Baserritarren azoka egongo da plazan, eta talogileak eta dultzaineroak ere izango dira. Alegia, Asteasu, Ibarra, Irura, Lezo, Lizartza, Tolosa eta Villabonako dantza taldeekin batera ibiliko dira kalejiran Anoetakoak. 12:00etan egingo dute emanaldia. 12:00etan egingo dute emanaldia. Erramun Martikorena eta Mikel Markez kanaldia izango da plazan. Asteburu osoa jai giroan pasa os-



lax, Kukua jaistearrekin batera haur danborrada izan zen plazan. E. MAIZ

tean, atsedena hartuko dute bi egunez.

Oraindik bost egun festarako Indarrak errekuperatuta, hilaren 22an, asteazkenean, 19:00etan botako dute txupinazoa. Behin Kukua jaitsi eta jaia lehertuta, bost eguneko jai giroa izango da Anoetako kaleetan. Denetarik izango da. Haur, gazte eta helduentzako moduko ekitaldiak prestatu dituzte: Musikarik eta jatekorik ez

da faltako; kirolak ere izango du bere tartea eta hurrek jolasak ere izango dituzte.

Korputz Egunean eta gazteen egunean, herri afaria egingo dute plazan. Hori dela eta, mahaian eta aulkien kopurua zehazteko beharrezkoa da izena ematea. Hilaren 17a baino lehen udaletxean edo liburutegian eman beharko da. Nahikoa da, koadrila bakoitzeko bat apuntatzea, bere taldean zentratu diren zehaztuz.

↓ Anoetako Jaiak 2011

EKAINAK 17, OSTIRALA

■ **22:30.** Anoetako Dantza Taldearen ikuskizuna kiroldegian.

EKAINAK 18, LARUNBATA

KOADRILEN EGUNA

- **12:00.** Koadrilen eguneko txupinazoa eta kalejira.
- **14:00.** Koadrilen bazkaria frontoian.
- **16:30.** Koadrilen arteko jokoak plazan.
- **19:00.** Koadrilen poteoa Zozongo batukadarekin.
- **21:00.** Koadrilen afaria frontoian.
- **23:30.** Erromeria Laket taldearekin plazan.

EKAINAK 19, IGANDEA

DANTZARI TXIKI EGUNA

- **10:00etatik aurrera.** Goiz osoan, Baserritarren azoka plazan, Anoetako AHT Gelditu! Elkarlanak antolatutik. Talogileak eta dultzaineroak egongo dira.
- **10:30.** Alegia, Asteasu, Ibarra, Irura, Lezo, Lizartza, Tolosa, Villabona eta Anoetako dantza taldeen kalejira.
- **12:00.** Dantza taldeen emanaldia plaza txikian.
- **19:00.** Kantaldia plazan: Erramun Martikorena eta Mikel Markez.

EKAINAK 22, ASTEAZKENA

■ **18:55.** Herriko txalapartariak Kukuaren etorrera iragarriko dute plazan.

- **19:00.** Herriko plazan jaiari hasiera: Txupinazoa, Kukuaren jaitsiera kanpai hotsekin eta danborrada Loatzo Musika Eskolako txarangarekin.
- **Ondoren.** Loatzo Musika Eskolako Trikitilariak plazan.
- **20:00.** Sardina jatea plazan, Kuku Elkarteak antolatutik.
- **23:30.** Erromeria Itzel taldearekin plazan.

EKAINAK 23, OSTEGUNA

KORPUTS EGUNA: UMEEN ETA MOZORROEN EGUNA

- **Oharra.** Barraken prezioa merkeagoa izango da.
- **10:30-13:30.** Ume eta gazte txoentzako parkea plazan.
- **11:00.** Herriko jubilatuaren arteko Toka Txapelketa plazan, Alkartasuna Elkarteak antolatuta.
- **16:00.** Umeentzako emanaldia: *Pantxika Txinparta ederra zalaparta!* plazan.
- **17:00.** Txokolate jatea plazan, Ateaga Elkarteak antolatutik.
- **18:00.** Loatzo Musika Eskolako bandaren kontzertua plazan.
- **19:00.** Buruhandi eta Erraldioen kalejira herriko txistulariekin.
- **20:30.** Herri afaria plazan.
- **22:15.** Txalapartariak San Joan bezperako suaren jai iragarriko dute. Ondoren, suaren inguruan San Joan zortziko kantua eta erromeria: Markox Landa aita-semeak, ahosoinuarekin.
- **01:00.** Kontzertua: Los Zopilotes Txirriños plazan, eragileek antolatuta.

EKAINAK 24, OSTIRALA

SAN JOAN EGUNA, JUBILATUEN EGUNA

- **10:00.** XIV. Eskuzko Pilota Herri Txapelketako finalak. Udala Pilotariak antolatutik.
- **12:00.** Meza jubilatuei eskainia. Aurretik, herriko dantzariak agurra dantzatuko dute herriko jubilatuaren omenez.
- **12:30.** Apar festa plazan, umeentzat.
- **14:00.** Herriko jubilatu eta pentiodunen bazkaria eta dantzaldia Zuloaga Txiki jate-txean.
- **18:00.** Ume eta helduen play-back-a plazan.
- **19:00.** Buruhandi eta erraldioen kalejira herriko txistulariekin.
- **21:00.** Saiheski jatea, Anoetako ezker abertzaleak antolatutik.
- **00:00.** Kontzertua plazan: 121 Crew eta Itziarren Semeak taldeak izango dira.

EKAINAK 25, LARUNBATA

GAZTEEN EGUNA,

- **11:00.** Herri lasterketa umeentzat. Plazatik abiatuko da.
- **12:30.** Buruhandi eta erraldioen kalejira herriko txistulariekin.
- **15:30.** Mus Txapelketa, Ateaga Elkarteak antolatutik.
- **17:00.** Ginkana eta ume jolasak plazan, Oriako Txirrindulari Eskolak antolatutik.
- **18:00.** Gazteen kalejira dantza eginez.

- **19:00.** Sagardo dastaketa, txorin egosia eta gazta pintxoekin, Kuku Elkarteak antolatutik.
- **21:00.** Herri afaria frontoian. Izena eman behar da hilaren 17a baino lehen udaletxean edo liburutegian.
- **23:30.** Gazteen dantza plazan.
- **Ondoren.** DJ Bull plazan.

EKAINAK 26, IGANDEA

- **11:00.** Gorritiren festibala: Zentxoak eta poneyak plazan.
- **11:00.** Paleta Txapelketako finalak frontoian, Kuku Pilota Elkarteak antolatutik.
- **12:30.** Buruhandi eta erraldioen kalejira herriko txistulariekin.
- **17:30.** Herri kirolak: Arozetxea ondoko belazean.
- **Ondoren.** Gabezin erromeria taldea 20:30ak arte plazan ariko da.
- **23:00.** Gabezin erromeria taldea plazan.
- **00:00.** Kukuaren igoera kanpandorrera.
- **Ondoren.** Erromeriaren jarraipena.

EKAINAK 19, 25 ETA 26

■ **12:30-14:00 / 18:30-20:30.** Erakusketak udaletxean: herriko artisten lanak eta eskulane-tako taldeak egindako lanak ikusteko aukera egongo da. Era berean, festetako kartel lehiaketan aurkeztutako lanak egongo dira.

→ Laburrak

Serigrafia tailerra antolatu dute Gaztelekuan

VILLABONA ▶ Katea Etxeak serigrafia tailerra antolatu du hilaren 27, 28, 30 eta uztailaren Tean, Gaztelekuan. 12-17 urte bitartekoek 25 euro ordaindu beharko dituzte, eta 12-17 urtekoek 45. Izena Gaztelekuan eman behar da ekainaren 24a baino lehen. Ikastaro hauek Villabonako Udaltaldearen laguntza dutela ere azaldu dute. Erroldatuta ez dauden gazteek prezio osoa ordaindu beharko dute.

3X3 saskibaloia lehiaren izena emateko aukera zabalik

TOLOSA ▶ XIII. Street Basket Txapelketa 2011 hilaren 18an, larunbatean, izango da. Izena emateko www.takesb.com-en sartu behar da. Goizean alebiren eta infantilen partidak jokatu dira, eta arratsaldean eskualdeko koadrilen txanda izango da. 3X3 txapelketa Take saskibaloia taldeak antolatzen du.

Bigarren eskuko liburuen eguna larunbatean

TOLOSA ▶ Ekainaren 18an, larunbatean, Samaniego herri ikastetxeak bigarren eskuko liburuen eguna antolatu du Tolosan. Liburutegiarekin batera. Azoka horretan ateratako dirua elkartasun proiektu bat finantzatzeko erabiliko dutela azaldu dute Samaniegotik. Aurreko urteetan bezala, Kolonbiako Guabas inguruko biztanleriak irakur liburuak izan ditza-ten Bibliomula proiektua irauarazteko erabiliko da. Liburutegi ibiltaria da Bibliomula, eta herri indigenen artean liburuak, inguruko berriak... eramatea du helburu.

Aldaban ukenduen inguruko ikastaroa

ALDABA ▶ Aloe Vera, intsusa, eguzki loreak eta inguruan ditugun sendabelarrak bildu eta ukendua egiten erakutsiko du Axun Zubeldia aldabarrak, larunbatean, 16:00etan. Bi ordu inguruko ikastaroa izango da eta interesa duten guzientzat zabalik egongo dira lntxur elkarteko ateak.

Festak antolatzeko bilera egingo dute, ostiralean

LARRAUL ▶ Ostiralean, hilaren 17an, jaiak antolatzeko bilera egingo du Kultur Batzordeak. Kultur etxean, 21:00etan izango da. Aurreko bileretan oinarritzko egitaraua osatu da, eta hori finkatuko dute.



Lauburuko jubenilen taldeak orain gutxi jokatu zuten Gipuzkoako Txapelketako finala. HITZA

Lauburu Euskadiko txapeldun

Euskadiko Txapelketaz gain, hirugarren urtez jarraian Gipuzkoako txapeldunak izatea ere lortu dute Lauburukoek

M.U. Ibarra

Ibarrako areto futboleko Lauburu taldeak Euskadiko Txapelketa irabazi zuen larunbatean, Santurtziko Kiroldogian. Aurtan lehen aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoko herrialde bakoitzeko

talde batek jokatu zuten Euskadiko Txapelketa. Gipuzkoako ordezkariak izan ziren Lauburuko gazteak, eta Arabako Aretxabaleta taldearen eta Bizkaiko Siempre Bilbo taldearen aurka jokatu behar izan zuten. Lehenengoei, 0-6 eta bigarrenei 1-3 irabazita lortu zuten txapela. Honela, bost urtean laugarren aldiz irabazi zuten Euskadiko Txapelketa, eta honekin jubeniletan dagoen talderik onena direla erakutsi dute.

Finalean David Uzkudunek, Andonik eta Kaki sartu zituzten, eta taldekideen arabera, nabar-

mentzekoa izan zen Ion Artola, Cristian eta Guillemmok egindako «lan ona». Gainera, azken honek, Santurtzin irabazitako trofeoa bertan bildu ziren zaleei eskaini zien.

Gipuzkoako txapeldunak

Horrez gain, orain dela gutxi Gipuzkoako Txapelketa ere irabazi zuten Lauburuko jubenilek, Elgoibarko Debarbarrena taldeari irabazita.

Garaipen honekin hirugarren urtez jarraian Gipuzkoako txapeldunak izatea lortu dute.

Leitzaldea eta euskara ikus-entzunezko batean lotu dituzte

‘Leitzaldea euskara bidean’ DVDaren aurkezpena gaur izango da, 19:30ean, Leitzako udaletxean

M. Ugartemendia

Gaur, *Leitzaldea euskara bidean* DVDaren aurkezpena egingo dute Leitzako udaletxean. Aurkezpena 19:30ean hasiko da, eta

bertan izango dira Euskarabideko ordezkari moduan Xabier Azanza, Labrit Multimediako ordezkari bezala Gaizka Aranguen, eta DVDrako elkarrizketak egiten aritu den pertsona bat.

Leitzaldea euskara bidean DVDa Euskarabideak azken urte hauetan Nafarroako Euskararen Mediaketa proiekturako egin dituen zenbait elkarrizketen erakusgarri da.

DVD honetan Arano, Goizueta, Areso eta Leitzan egindako elka-

rrizketen lagin bat bildu dute. Gainera, ikus-entzunezko honetan gaika dago antolaturik eta familia, kultura, ohiturak, erlijioak eta lanbideak dira elkarrizketetan jorratzen diren gaietako batzuk.

Aipatu ekitaldiaren antolatzaileak Euskarabidea, Labrit Multimedia eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea izan dira. Eta, herritar guztiak gaur egingo den aurkezpena gonbidatu dituzte.

San Bartolometako bozeto lehiaketa

Ibarran bizi edota ikasten duten haurrek beraien lanak aurkeztu ahal izango dituzte uztailearen 8ra arte

M.U. Ibarra

Ibarrako Udalak 2011ko San Bartolome jaiegi egitaraua egiteko bozeto lehiaketa antolatu du. Lehiaketaren helburua, aurkeztutako marrazkien artean jai egitaraua marrazkiak aukeratzea da.

Lehiaketan Ibarran bizi edota ikasten duten haurrek parte hartu ahal izango dute, eta beraien marrazkiek jaiegi lotura izan behar dute. Marrazkiak folio jarrirrikoak izan behar dute, eta *Sanbartolomeak 2011* adierazpena eta Ibarrako armarrria (edota beru jartzeko lekua) eduki beharko dituzte nahi eta nahi ez. Bozeto gutun-azal batean sartuta entregatu beharko dute, egilearen izen-abi-zenak, helbidea, telefonoa, jaiotze data, ikastetxeko datuak jarrita. Lanak uztailearen 8a baino lehen Kultur Etxean utzi behar dira.

Irudia ◊ Anoeta



XAKE TXOKOAREN FESTA

Larunbatean Xake Txokoaren festa ospatu zen Anoetan, eta Urretxu, Donostia, Villabona, Irura eta herriko haur, gazte eta helduek parte hartu zuten festan. Lehenik txikienek txapelketa txiki bat egin zuten, eta jarraian, festa alaitzeko joko «zelebre» batzuk egin zituzten. Giro onean igaro zuten arratsaldea. Sari banaketaren ostean, askaria egon zen ikasturteari amaiera emateko. HITZA

→ Laburrak

Jaiak antolatzeko bilera egingo dute, gaur

LEABURU › Udalak jaiak antolatzeko bilera egingo du, gaur, 20:00etan, udaletxean. Herritar guztiak bileran parte hartzea gonbidatu dituzte.

Gazte Festetako bazkariko txartelak salgai daude

IBARRA › Asteburu honetan ospatuko diren Gazte Festetan, gazte bazkaria egingo dute, larunbatean, 14:00etan, Xeplan. Bertara joateko txartelak salgai daude ohiko lekue-tan. Ikasle eta langabetuek 12 euro ordaindu beharko dute, eta langileek 15 euro.

Kultur jardueretako laguntzak eskatzeko epea

IBARRA › Udalak 2011 urterako kultur jardueretarako diru laguntzak emateko deialdia ireki du. Deialdiaren xedea Ibarran kulturaren alorrean urteko egitasmoak edota ekitaldi puntualak garatu eta burutzeko pertsona fisiko edo juridikoek diru laguntzak eskatzea da. Laguntzak uztailearen 8a baino lehen eskatu beharko dira Ibarrako Udaleko erregistro orokorrean.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA EGUNKARIAN
uztailean **PRAKTIKAK**
egiteko aukera

TOLOSALDEKO eta LEITZALDEKO hitza info

Bidali zure curriculuma
tolosaldean@hitza.info helbidera



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Alkateen elkarrizketak →

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK uztaila bukaerara bitarte izendatu berri diren eskualdeetako alkateen elkarrizketak argitaratuko ditu, herritarrek udal ordezkarien asmoak eta erronkak ezagutu ditzaten.

Jon Umerez ◉ Alkizako alkatea

Zortzi urte zinegotzi lanetan aritu ostean, alkate izango da Umerez. «Ilusioz eta gogoz» ekingo die hurrengo lau urteei.

«Desiratzen gaude herritarren asmo, zalantza eta ideiak jasotzeko»

Eneritz Maiz Alkiza

Jon Umerez izango da Alkizako alkatea. Udalaren funtzionamendua ongi ezagutzen du, zortzi urtez zinegotzi izan baita. Hala ere, egunerokoan «hasiberri» sentituko dela azaldu du.

Zortzi urte udalean eman ostean, alkate izatera animatuzara.

Lehenengo aldiz eskaini zidateanean, pentsatu nuen merezi zuela

ekarpenen bat egiteak, eta horrela sartu nintzen. Nik beti esan dut bi legealdi kopuru txukuna dela, egoteko eta uzteko. Asmo horrekin nengoen, baina alkateak utzi egin behar zuen eta duela urtebete edo hasi ginen zer egin pentsatzen. Bata besteari begira, gauza batzuk bagenituen esku artean, eta talde bezala bata bestea animatuz egon ginen. Batek jarraituz gero, besteak jarraituko zuela



E.MAIZ

eta bostok aurrera egitea erabaki genuen. Talde lana izango da, baina azkenean niri egokitu zitzaidan lehena izatea. Ez da arduraz hartzen den gauza bakarrik. Behinerabakia hartuta, ilusioarekin eta gogoz nago.

Aurreko legealdiaz zeresan?

Nahiko balorazio ona egiten dugu, eta uste dut horren ondorio dela talde bezala agertzea. Uste dut denak gustura egon garela,

eta baita uzten dutenak ere. Ono moldatu gara. Egitekoen artean berriz, gure programa xumea zen, baina esandako gehiena egin dugu. Eskolaren arazoa geratu zaigu zintzilik. Eskola berri bat egiteko oztopoz betetako bide baten aurrean gaude: Baietz agindu ziguten, eta gero Eusko Legebiltzarra aldatzean ezezkua eman ziguten. Orain berriz ere, hasieratik hasi beharrean gaude. Ia 50 ikasle

daude, eta beharra dagoela onartu digute.

Hurrengo lau urteei begira, zer?

Aurrera begira ere, ildo berari jarraituko diogu eta programa errealistena egin dugu. Helarazi nahi dugun lehen gauza talde lana izango dela da, eta ez alkatearena. Azken lau urteetan ere saiatu gara, eta orain ere herritarren parte-hartzea bilatzen saiatuko gara. Eta batik bat, plan orokorra garatu behar dugu, eta udala ahalik eta gertuen eta irekien edukiko dugu. Ez bakarrik prest, baizik eta, desiratzen gaude herritarrek dituzten asmoak, zalantzak, ideiak eta eskaerak jasotzeko. Lana egiteko batzordeak osatuko ditugu. Horrek ez du esan nahi beti amen esango dugunik.

Zer esan dezakezu proiektuen inguruan?

Juanena Etxea bukatu behar dugu. Erabilera anitzeko eraikina da, eta edukiz bete behar dugu: Etxebizitza sozialak, bileretarako eta gizarte zerbitzuen gela... izango dira bertan. Eskola berria lortzeko erronkarekin jarraituko dugu. Eta agortuta ditugu arauak eta plan orokorrek hasi beharra dugu, eta horiek egitea izango da gure helburu nagusia. Araztegiari jarraipena eman, ermita eta frontoia konpondu,...

Igaro Balda ◉ Hernialdeko alkatea

Lau urteko alkatetzaren ostean, berriz alkate lanei ekin die Igaro Balda gazteak. Erreleboa inork hartu nahi ez duelako dagoela udalean azpimarratu du, hala ere, talde berria osatu dute lanerako.

«Zirriborroa baino ez dugu, eta plan orokorra bukatzea da gure helburua»

E. Maiz Hernialde

Igaro Balda izango da beste lau urtez Hernialdeko alkatea. Alkatez hartu bezain laster hartu gaitu bere bulegoan, pasatakoaz eta hurrengo lau urteez hitz egiteko. Gaur egingo dute udal taldeko kide berriekin bilera, udalaren funtzionamendua ezagutu dezaten.

Lau urte pasa ostean, berriz errepikatuko duzu.

Batik bat erreleborik ez dagoelako. Lau urteetan gustura egon naiz, baina utziko nuke. Ez dago

erreleborik kasu honetan eta talde berria osatu dugu. Bik jarraitzen dugu, eta bost berri sartu dira taldera. Kosta zitzaigun taldea osatzea.

Nolako esperientzia izan da aurreko legealdikoa?

Gogorra oso. Lehenengo urtea oso oso gaizki pasa nuen, gogorra egin zitzaidan. Udala lau urte inor egon gabe egonda hartu genuen. Lan asko zegoen atzeratuta, eta sartu ginen zazpiak ez geneukan inolako esperientziarik. Baina behin hori pasata gustura, esperientzia ona izan da.

Orain legealdi honi aurre egiteko prest egongo zara?

Arazoa besterik ez da izango baina, errazago bai. Lau urteko esperientzia izanda errazagoa izango dela uste dut.

Zein balorazio egin duzue aurreko legealdiarena?

Balorazio positibo egiten dugu. Gauza mordo bat egin dira, eta diru laguntza asko lortu ditugu. Ustez jendea ere gustura dago.

Zein izan da herritarren erantzuna?

Denetarik. Denen gustura egitea ezinezkoa da. Orokorrean esango nuke nahiko ondo joan dela.



E.MAIZ

Hurrengo lau urteei begira, zein izango da zuen lan ildo nagusia?

Plan orokorra geratu zaigu egiteke. Zirriborro bat baino ez dugu, eta hori bukatzea izango da gure helburua. 1997. urtekoak ditugu. Hasierako onarpena eman baino lehen, herritarren ekarpenak jaso nahi ditugu. Eta hortik aurrerakoa diruaren araberakoa izango da. Genituen zor guztiak

kenduak ditugu, eta alde horretatik egoera onean gaude.

Ba al duzu kezkarik?

Abiadura Handiko Trenaren obrak. Gure lurretara iritsi dira, eta ez dugu inongo informazio ofizialik. Izugarritzko txikitzeak egiten hasi dira. Zurrumurruak baino ez ditugu herrian zabortegi bat egin behar ote duten edo. Bel-dur handia daukat AHTrekin.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Morant,
R. Zabalarreta, 1.
Telefonoa: 943 67 36 49.
- **Lekunberri.** Mendia,
M. I. Aralar kalea, 25.
Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIK

- **Villabona.** Aniztasun Astearen barruan, migrazioa, hezkuntza eta hizkuntzak izango dituzte hizpide gaur, 18:00etan udaletxe erabilera anitzeko gelan. Villabonako hezkuntza errealitatea ezagutzeko aukera izango dela esan dute antolatzaileek. Bihar berriz, altxorren bila jokoan ariko dira 17:00etik aurrera. Errebote plazatik aterako dira eta parte-hartzaileek herrian zehar zabaldutako pistak bilatu beharko dituzte. Gazte zine gurasoei zuzendutako ekitaldia da.
- **Leitza.** *Leitzaldea Euskara Bidean* DVDaren aurkezpena gaur, 19:30ean udaletxean. Ekitaldia Euskarabideak, Labrit Multimedia eta Leitza, Goizuetan, Areso eta Aranoko euskara zerbitzuak antolatu dute.

ERAKUSKETAK

- **Alegia.** Garai bateko Alegiako argazkiak Jubilatuen tabernan hilabete bukaera arte.
- **Larraul.** Pisuak eta balantzak biltzen dituen erakusketak Ekomuseoan iraila bitarte.

Irudia Tolosa



UXOLAREN SARIAK BANATU DITUZTE

Herenegun banatu zituzten Tolosako Kultur Etxeko beheko solairuan 2011ko Uxola literatur lehiaketako sariak. Urtero bezala, lau maila izan da, eta bertan 8 eta 16 urte bitarteko gazteek hartu dute parte. Saridunek euren lanak irakurri zituzten bertaratutako ena-

rrean, eta ez zuten edonola egin, gainera. Izan ere, Musika Eskolako Carlos Alcalak lan bakoitzean oinarrituta xilofonoan jotzeko pieza konposatu eta jo baitzuten herenegungo sari banaketan. Zorionak saridun guztiei. I. URKIZU

Agurak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO** hitza info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldea.hitza.info
www.leitzaldea.hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea, atzea - 20400 Tolosa

beharezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak:	•NA:
•Lanbidea:	•Jaioteguna:
•Helbidea:	•Herria:
•P.K.:	•Tel.:
•Posta elektronikoa:	
•Kontu zenbakia:	<input type="text"/>